


34 zenbakia
número
2008 urria • azaroa • abendua
octubre • noviembre • diciembre

txingudi_{ko}
paduren albistegia



elkarrizketa/entrevista
Mikel Estonba



jarraipena/seguimiento
Censo de Aves Nidificantes



bildumarako-fitxa/ficha coleccionable
Cormorán grande



argazkia • fotografia: JOSE MARI GIMON

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

behaketak avistamientos



Un vuelvepedras canadiense | en Txingudi


El vuelvepedras común (*Arenaria interpres*) es una especie bastante fácil de observar en Txingudi durante casi todo el año, generalmente formando pequeños bandos, presente tanto en sus desplazamientos migratorios como durante la invernada. Cría en el Ártico a lo largo de todo el hemisferio norte, motivo por el cual está ausente en la Península Ibérica desde junio hasta finales de agosto aproximadamente.

El pasado agosto, se observó un pequeño grupo de vuelvepedras en Plaiaundi; nada fuera de lo normal, tratándose de los primeros migrantes, adultos en tránsito hacia los lugares de invernada tras finalizar las tareas reproductivas. Uno de los ejemplares portaba anillas de colores en las patas, formando parte de un programa de marcaje, utilizados con numerosas especies para conocer sus desplazamientos. La lectura del código de colores permitió conocer el origen del ejemplar. Lo excepcional fue constatar, tras la confirmación del anillador Guy Morrison, investigador del Nacional Wildlife Research Centre de Canadá, que el ave había sido anillada en junio del 2008 en Alert, extremo septentrional de la Isla de Ellesmere, en pleno ártico canadiense. Alert es una pequeña base militar y científica, y pasa por ser el lugar habitado más norteño del planeta, a sólo 840 km del Polo Norte.

El vuelvepedras emplea unos 45 días en cumplir el ciclo reproductor completo (incubación y crianza de los pollos). En una latitud tan septentrional el verano es muy breve, reduciéndose al periodo entre junio y julio. El ejemplar fue anillado a primeros de junio, y a primeros de agosto ya estaba en Txingudi, por lo que en menos de 2 meses ha realizado presumiblemente el cortejo o búsqueda de pareja, la incubación y crianza de los pollos y el largo viaje de retorno hasta aquí, lo que da idea de la frenética actividad de estas especies durante el breve periodo del verano norteño.

Se da la circunstancia de que a últimos de noviembre de 2008 se observa otro vuelvepedras anillado en Txingudi (Paseo Butrón de Hondarribia), esta vez procedente de Alemania.

(Artículo realizado gracias a la información y fotografías de Alfredo Herrero, Félix Calvo, Txema Grandío y Ricardo Rodríguez)



jarraipena seguimiento



Censo de Aves Acuáticas Nidificantes

resultados en 2008

El Censo de Aves Acuáticas Nidificantes viene desarrollándose en la CAPV desde 2005, promovido por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco. El objetivo es calcular el tamaño y composición de las poblaciones de aves acuáticas que nidifican en el territorio de la CAPV, buscando profundizar en el conocimiento de nuestra biodiversidad. El censo se realiza en los tres territorios históricos a cargo de diversos grupos colaboradores, cubriendo un gran número de hábitats acuáticos: lagunas y lagos, estuarios y marismas, ríos, embalses, balsas de riego y graveras.

En Gipuzkoa el censo lo realiza Itsas Enara Ornitologi Elkar tea, contando con la colaboración del Departamento para el Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral. En Txingudi, los gestores del espacio nos encargamos cada año de censar Plaiaundi y Jaitzubia.

En cuanto a los resultados generales, Álava es el territorio con poblaciones más ricas (14 especies nidificantes respecto a 7 en Gipuzkoa y Bizkaia) y abundantes (785 parejas respecto a 186 en Gipuzkoa y 168 en Bizkaia), motivado por la mayor presencia de humedales en el territorio (hasta 28 localidades censadas, entre lagunas y lagos, embalses, ríos, balsas de riego y graveras).

2008 Resultados en Gipuzkoa (cifras correspondientes a número de parejas nidificantes seguras)

	Zampullín común	Somormujo lavanco	Anade azulón	Anade friso	Chorlitejo chico	Focha común	Gallineta común
Txingudi	8		34	2	4	21	12
Zumaia			1				
Inurritza							
Lareo			1				
Urkulu		5	6			2	1
Arriaran	1		3				
Troi	5	1	4			25	4
Leizaran			3			2	2
Oria bajo			4				3
Oria medio			3				9

En Gipuzkoa, los humedales se reducen a los estuarios y embalses, contando también algunos tramos fluviales. Txingudi es el enclave guipuzcoano más importante para las aves acuáticas nidificantes, con 6 especies y un total de 81 parejas. Le sigue el embalse de Troi, con 5 especies y 39 parejas. A destacar la nidificación en 2008, por primera vez en Gipuzkoa, del ánade friso en Txingudi.



elkarrizketa

entrevista



Mikel Estonba

Euskal Herrikoko hezeguneetan aditua

Mikel Estonba Irundarra da, biologiako ikasketak amaitu ondoren, Euskal Herriko hezeguneak ezagutzen eta ikertzen hasi zen, eta gaur egun Euskal Herriko hezeguneetan aditua dugu eta gaiari buruzko argitalpen askoren egilea, besteak beste Euskal Herriko hezeguneak (elhuyar) 2002 urtean.

Euskal Herriko hezeguneak oso ondo ezagutzen dituzu, nondik etorri zitzaizun hezeguneak ezagutu eta ikertzeko zaletasuna?

Biologia ikasten ari nintzenean, irakasleek sarritan Urdaibai aipatzen ziguten eta behin baino gehiagotan bertara hurbildu ginen itsasadar horren balio geologikoak, geomorfologikoak, naturalak eta ekologikoak ezagutzera. Hori zela eta, Irun ere, itsasadar batean kokatuta zegoela eta, beraz, antzeko balioak izan zitzakeela pentsatzen hasi nintzen eta Txingudiko badia ordura arte erabili ez nituen begiekin begiratzen hasi nintzen. Horren ondorioz, gure badiako txokoak eta hezeguneak deskubritu nituen eta errealitate aberats eta anitza, baina, neurri handi batean, ezezaguna zabaldu zen nire begien aurrean. Txingudirekin gertatutakoa beste hainbat hezegunerekin gertatzen zela pentsatuz, Euskal Herriko hezeguneak ezagutzeari, ikertzeari eta ezagutzera emateari ekin nion.



Orain dela gutxi arte hezeguneak ekosistema ezezagunak izan dira eta horregatik erregresio gogorra jasan dute, zergatik uste duzu gertatu dela hori?

Mende luzeetan, hezeguneak leku osasungaitz eta antzuak kontsideratu dira eta horregatik, lehortzea eta nekazaritzarako erabiltzea bul-tzatu da. Mentalitate hori, duela gutxi arte oso errotuta egon da eta, gaur egun ere, oraindik badira pertsona eta instituzio publiko ugari ekosistema garrantzitsu horiek mantentzeko beharra ulertzen ez dutenak. Gainera, kontuan hartu behar dugu XIX. mendean hasi zen industrializazio prozesuaren lurzoru behar handiak sarritan hezeguneen lurzoru lauei esker asetu direla.

Azken urteotan, jendeak duen hezeguneen iritzia eta sentsibilizazioa aldatu dela uste al duzu?

XX. mendeko 80. hamarkadatik aurrera, hezeguneak babestu eta lehengoratzeko asmoarekin sortutako talde ekologistak ugaritzen hasi ziren eta horiek ekosistema aberats horien garrantzia ezagutzera emateko lan handia egin zuten. Lan hori oso garrantzitsua izan da hezegunei buruz, bai politikoei, bai gainontzeko biztanleek duten ikuspegia aldatzeko. Gaur egun, hezeguneak inguru natural baliotsuak direla nahiko onartuta dago, nahiz eta, lehengoko inertzien ondorioz, oraindik haien aurkako erasoak ez diren amaitu.

Txingudiko babesaren partehartzaile aktiboa eta Txingudiren Aldeko Koordinakundeko sortzaileetako kidea izan zinen, gogorrak izan al ziren urte horiek?

Oso gogorrak. Txingudiren Aldeko Koordinakundea Txingudiko hezeguneen babespena eta errekupezioa aldarrikatzen hasi zenean, oraindik, politikoki ez zen aintzat hartzen ekosistema horien garrantzia eta geratzen ziren hezeguneak hiri garapenerako inguruak bezala ikusten ziren. Aspaldidanik zetorren inertziaren aurka egin behar izan genuen eta ez zen batere erraza izan. Alde horretatik, garrantzi handia izan zuten hezeguneen balioak ezagutzera emateko aurrera eraman genituen inizatibek (hitzaldiak, diaporamak, triptikoak...).





Koordinakundeko helburuak lortu al zenituzten?

Neurri batean. Gaur egun, publikoki behintzat, inork ez du zalantzan jartzen Txingudiko hezeguneen garrantzia eta lehengoratzeko prozesu batzuk burutu dira (Plaiiandi, Jaitzubi...). Beste aldetik, Txingudiko babespen figura bat lortu du, Txingudi Badiako Ingurune Naturalen Plan Berezia eta nazioarteko zenbait izendapen eskuratu du (Ramsar, Natura 2000...). Baina, egia da ere, Txingudiko hezeguneak babesteko eta lehengoratzeko prozesua oso motel doala eta esan daiteke, azken urteetan erabat geldirik egon dela. Lotsagarria da hainbeste urte igaro ondoren, oraindik Plaiiandiko kirol instalazioak mugitzeko akordioarik ez egotea edo Osinbiribil eta Bidasoako irletan oraindik ezer egin ez izatea.

Hala ere, gaur egun, zuek egindako lanaren emaitzak ikusita, zer iritzi duzu?

Nik aitortu behar dut borroka honekin hasi ginenean ez nuela uste Txingudiko hezeguneek gaur egun duten babespena lortuko zutenik. Mugimendu ekologistetan ibili garenok porrotak jasaten ohituta gaude, gehienetan, egindako lana ez baitu ezertarako balio izaten eta kasu honetan ere, horrelakoa izango litzatekeela uste nuen. Hala ere, nire bihotzak eskatzen zidan zerbaite egitea. Ezin nituen begiak itxi Txingudiko hezeguneen hondamendiaren aurrean. Ikuspegi horretatik, pozgarria da orain arte lortutakoa ikustea, baina argi utzi behar da ez dela nahiko.

Aurten Plaiiandiko X. urteurrena ospatu dugu, nola ikusten duzu Txingudiko paduren egoera gaur egun?

Lehenago aipatu dudan moduan, aurrerapausoak eman dira, baina ez dugu ahaztu behar, onartu zen Txingudiko Plan Berezia minimoetako plan bat izan zela. Kanpoan, balio handiko inguruneak geratu ziren, hala nola, Alunda eta Lastaolako ibai lurmenak, Txiplaoko ibarra... eta beste batzuentzat onartutako babespen maila ez zen lekuak merezi zuen modukoa izan (Osinbiribil, Jaitzubiako hainbat leku...). Minimoetako plan bat izan arren, urte horietan guztietan ez dira hura burutzeko gai izan, ezta Plaiiandiko kirol instalazioak bertatik ateratzeko ere. Hala ere, larriena iruditzen zait, balio handiko zenbait eremutan ezertxo ere ez dela egin, esate baterako erabateko babespena duten Bidasoako irlak, Bidasoako ibaiertzak...

Lan asko gelditzen al da egiteko hasierako helburu horiek lortzeko?

Bistan dago baietz. Txingudiko Plan Bereziak bultzada sendo bat behar du dagoen "impase" egoeratik ateratzeko. Horrez gain, beti defendatu dugu Txingudiko hezeguneen babespena ikuspegi orokor batetik egin behar dela. Txingudiko padurak elkar lotuta dauden eremuak dira eta ezin dira leku isolatuak balira bezala kontuan hartu. Zentzu horretan, berebiziko garrantzia du mugaz bi aldetako erakundeek elkarrekin lan egitea eta Txingudiko padurak bere osotasunean babestuko duen egitasmo bat adostea.

“Aspaldidanik zetorren inertziaren aurka egin behar izan genuen eta ez zen batere erraza izan”

Nola ikusten duzu Txingudiko paduren etorkizuna?

Une honetan, zoritxarrez, berriro ere nahiko beltza ikusten dut etorkizuna. Plan Berezia erabat geldirik dago eta iruditzen zait borondaterik ez dagoela aurrera jarraitzeko. Plaiiandiko kirol instalazioak handik aterako ote duten ere, zalantzan jartzen dut eta zer esanik ez, Plan Berezian garatzeko geratzen diren atalak gauzatu ote diren. Agian, kontzientziak berriro pizten hasteko garaia iritsi da.

Zein da gaur egun Euskal Herriko hezeguneen egoera?

Txingudiren kasuan gertatu den moduan, hezeguneekiko mentalitatea aldatzen ari da eta ingurune natural baliotsu horiek babesteko eta lehengoratzeko hainbat egitasmo martxan jarri da azken urteotan. Esan daiteke, egun tamaina ertain eta handiko hezeguneak babestuta daudela. Hezegune txikien egoera, ordea, bestelakoa da. Horiek, oraindik ere, lehenago aipatu dudan inertzia suntsitzailearen helburu dira, kontuan hartu gabe, txikiak izan arren, leku aberatsak direla eta askotan, iragan oparoaren azkeneko lekukoak.

2002 urtean Euskal Herriko hezeguneak liburua argitaratu zenuen, geroztik asko aldatu al da egoera?

Liburua argitaratu nuenetik, hainbat hezegunek babespena lortu du eta zenbait kasutan, hezeguneen etsairik handienak izan diren buldozerrak galdutako hezeguneak berrreskuratzen ikusi ditugu. Baina txanponaren beste aldean ditugu azken urte hauetan suntsitu direnak. Donostian, Baionan, Barakaldon..., aspaldidanik entzuten ez genituen argudioak erabilia, geratzen ziren azkeneko hezegune hondarrak suntsitzen ikusi ditugu eta horrek frogatzen du mentalitate aldaketa hori ez dagoela uste genuen bezain errotuta.

Zer egin genezake egoera hau aldatzeko?

Nire ustez, ingurune natural horien balioak zabaltzen jarraitu behar dugu. Biztanleek ulertu behar dute zein den ekosistema horien garrantzia Hezeguneetan aurkitzen ditugun izaki bizidunak soilik leku horietan bizi daitezke eta leku horiek suntsituz gero, betirako desagertzeko arriskua dago. Ulertu behar dute ere, kiroldegi bat, industrialde bat, errepide bat... beste toki batean egin daitezkeela, baina hezeguneak dauden lekuetan soilik gara daitezkeela eta garapen iraunkorraren bidean, gure ondare naturalaren zati garrantzitsu horren babespena eta errehabilitazioa zutabeetako bat dela.





Hezeguneen Nazioarteko Eguna

Urtero, Otsailaren 2an, Hezeguneen Nazioarteko Eguna ospatzen da Ramsar Hitzarmena (Hezeguneen Hitzarmena) sinatu zen eguna gogoratzeko: 1971ko otsailaren 2a. Plaiaundiko Parke Ekologikoan aukera aprobetxatzen dugu jendeari Txingudiko hezegunea erakusteko eta duen garrantziak jabetzeko, eta orokorrean hezeguneen balioa eta Ramsar Hitzarmena azaltzeko. Helburu horrekin hurrengo ekintzak antolatuta dira:



Igandean, **otsailak 1**, bisita gidatuak eskainiko dira Txingudiko hezegunearen ezaugarriak eta balioa erakusteko. Bisitan, hezeguneen funtzioa, ezaugarriak, jasaten dituzten arazoak, eta abar azalduko dira.

Aste horretan, **otsailak 1-6**, eskolako taldeei eskaintzen zaien programa hezeguneetara zuzenduta dago, horien garrantziak eta balioaz ohartzeko. Horretarako lantegi bereziak eskaintzen dira ikasleei zuzenduta.

Otsaileko hilabete osoan FoNoMad-eko (fotógrafos de naturaleza de Madrid) "Agua fuente de vida" argazki erakusketa egongo da ikusgai Txingudi Ekoetxean.

Eta ekintza gehiago ere izango dira... Deitu eta informa zaitez!!



Hontz zuria

Azaroaren 21ean hontz zuria (*Tyto alba*) egun-argiz ikusteko aukera paregabea izan genuen Plaiaundiko Parke Ekologikoan. Goiz erdian, lertxunaren behatokiaren aurrean pausatu zen, adar baten gainean, eta hemen egon zen denbora luzez. Parkeko ibiltari eta argazkilari batzuk momentu honetaz gozatzeko aukera izan zuten, eta argazki ederrak atera zituzten, Juanjo Arizpe argazkilariak eta parkeko ohiko bisitariak ateratako argazki honen bezalakoak.



Ingurumen Sailburuak Plaiaundiko Parkea bisitatu zuen, Habitataren Mundu-Mailako egunean

Urriaren 6an, Esther Larrañagak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak Plaiaundi bisitatu zuen Habitataren Mundu-mailako Eguna ospatzeko.

Habitataren mundu-mailako eguna urriko lehen astelehenean ospatzen da urtero. Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak ezarri zuen, 1986an, habitatak duen garrantziagatik, biztanleriaren hazkundeagatik eta ingurunearen baldintzengatik. Hori dela eta, habitaten kudeaketa eta garapen integralean espezializatu-tako agentzia bat sortu zuen NBEK: Pertsonak Lekukotzeko Nazio Batuen Zentroa. Zentro horren zeregina, pertsonen bakea eta duintasuna edukiko duten leku bat lortzea da: ekonomia-aren edo jendar-tearen arloko oztoporik gabe.

Larrañaga sailburuak, bere bisitaldia aprobetxatuz, habitatak eta ekosistemak zaintzearen garrantziaz hitz egin zuen, eta Txingudi nabarmendu zuen biodibersitatearen berreskurapena eta zaintza hiriarekin bateragarri egiteko adibide gisa. Plaiaundiko parketik hegaztiak behatzen ibilaldia eman aurretik, Txingudiko hegaztien gida berria aurkeztu zuen, bisitariel bana ematen.



Ubarroi handia
Cormorán grande
Phalacrocorax carbo



Descripción:

Ave acuática de tamaño grande y color negro, con irisaciones en partes inferiores y alrededor del cuello. Pico ganchudo y garganta amarillenta. En época nupcial presenta una mancha blanca en el muslo. Los juveniles de color pardo, con pecho y vientre blanquecino. En Txingudi se pueden observar dos subespecies. *Pc. sinensis* con cabeza y nuca de color blanco y *Pc. carbo* con cabeza y nuca negra.

Hábitat:

Habitual en cualquier tipo de extensión de agua ya sean ríos, estuarios, marismas, costas abiertas, lagos, embalses,...

Calendario:

Especie visible durante todo el año excepto en la época de reproducción (mayo - junio). Ocasionalmente, en verano pueden observarse algunos ejemplares no reproductores.

Situación de la especie:

Globalmente la especie no está amenazada, aunque en los últimos tiempos se ha detectado un importante descenso de la misma.

Consejos para verla:

Especie piscívora que captura sus presas buceando, por tanto requiere masa de agua con cierta profundidad; resulta fácilmente visible pues tras sumergirse acostumbra a secarse las alas en posaderos habituales. Ave gregaria que suele concentrarse en dormideros al atardecer. Común en toda la bahía de Txingudi.

Izen Abizenak / Nombre y apellidos: NAN / DNI:

Helbidea / Dirección:

Herria / Población: PK / CP: Herrialde / Provincia:

Tel.: e-mail:



marismas de txingudi ko padurak

Txingudiko badia Gipuzkoan dagoen padura ingurunearen eredurik onena da. Hezegune berezi eta baliotsu hau, balio ekologiko aintzatetsia duen espazio naturala da. Gainera, hegazti espezie askotako migrazio-bidean kokatuta egoteak babesleku garrantzitsua bihurtu du.

Babes irudi garrantzitsuenak:

Txingudiko Baliabide Naturalak Babestu eta Antolatzeke Plan Berezia, RAMSAR Hitzarmena (Nazioartean garrantzia duten hezeguneak) eta Natura 2000 Sarea (GKL eta BBE).

La bahía de Txingudi es el mejor ejemplo de medio marismeno existente en Gipuzkoa. Este singular y valioso humedal es un espacio natural de reconocido valor ecológico, y su privilegiada situación en el paso migratorio de numerosas aves lo convier te en una importante zona de refugio.

Principales figuras de protección:

Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Txingudi, Convenio RAMSAR (Humedales de Importancia Internacional) y Red Natura 2000 (LIC y ZEPA).

Txingudiko lagunak

Oraindik "Txingudiko Lagunak" taldean izena emana ez bazaude eta Plaiaundi eta Txingudiko padurei buruzko informazioa jaso nahi baduzu, posta edo e-mail bidez bidali itzazu zure datu pertsonalak. Ekimen honekin, hezegune honen kontserbazioan interesatuak dauden pertsonen talde bat osatzea espero da, albistegi hau jasoko dutenak, eta nahi izanez gero, ekintza antolatuetan parte hartu ahal izango dutenak.

Amigos/as de Txingudi

Si aún no estás inscrito en el grupo "Txingudiko Lagunak" y deseas recibir información sobre Plaiaundi y las marismas de Txingudi, remitenos tus datos personales por correo o e-mail. Con esta iniciativa se pretende formar un grupo de personas interesadas en la conservación de este humedal, que reciban este boletín, y si lo desean puedan colaborar con su participación en las actividades organizadas.

interpretazioko zentroa / centro de interpretación



Txingudi Ekoetxea

Plaiaundiko Parke Ekologikoa

Pierre Loti ibilbidea • 20304 Irun (Gipuzkoa)

Tel.: 943 619 389 • plaiaundi@ej-gv.es • www.euskadi.net/txingudi

bisita gidatuak

Egunero eskaintzen dira, doan.

Beharrezkoa da alde zurretik ordua eskatzea.

Deitu eta informa zaitez,

visitas guiadas

Se ofrecen todos los días, gratuito.

Es necesario concertar cita previa.

Llamar para informarse.

ordutegia horario	Lanegunak (astelehena izan ezik)	Jai egunak eta astelehena
	Días laborables (excepto lunes)	Días festivos y lunes
Udaberria-Uda Primavera-Verano	9.00h. - 15.00h. / 16.00h. - 19.00h.	10.00h. - 14.00h. / 16.00h. - 19.00h.
Udazkena-Negua Otoño-Invierno	9.00h. - 15.00h. / 15.30h. - 17.30h.	10.00h. - 14.00h. / 16.00h. - 17.30h.

Ale kopurua / tirada: 1.200 | Inprimaketa / Impresión: mccgraphics | L.G. / D.L.: BI-2028-08 | Paper Ekologikoa inprimatua / Impreso en papel ecológico